

ASTEKARIA - 2009ko urtarrilaren 16an - XIII. urtea - Usurbil, 351. zenbakia

Noaia!!!

www.noaia.com



Konpost egiteko kanpainak
arrakasta handia izan du



Sasoi onean da
Usurbil Futbol Taldea



MAHUKA

etxebeste 3 · ☎ 943 361 106

**ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK**

Zer erreko litzateke erraustegian?

Hiri zaborra: Etxebizitzetan
sortutako zaborrak.



Industriaren, merkataritzaren eta
erakundeetan sortutako zabor
parekatuak.



EDAR lohiak: Uren-araztegi
plantetan sortutako lohi edo
lokatzak.

*Iturria: San Markosko
Mankomunitatearen Hiri
Hondakinei buruzko Plan
Integrala 2002-2016.





Urtinea Lorategia



Frutarbolak aldatzeko sasoiak Aukera zabala:

- * Bertako sagar barietateak
- * Udareondoak, gereziendoak, aranondoak,
intxaurreondoak, pikondoak, kakiak, kiwiak...
- * Fruitu txikidun zuhaixkak: mugurdiak,
anderemahatsak, feijoa...

San Esteban auzoa
☎ 943 362 255 Faxe: 943 366 054
E-mail: urtinea@euskalnet.net



Albistea iruditan !!

Zubietan eskiatzen

Eguberriak elurrarekin lotu ohi ditugu. Aurten, ospakizunak amaitu berritan iritsi zaigu elurra. Eta nola gainera. Gogotik egin zuen aurreko ostegunean. Urtarrilaren 8ko denboraleak aurreikuspen guztiak gainditu zituen eta, aspaldi ez bezala, elurra mara-mara egin zuen.

Argazki ederrak utzi dizkigu urteko lehen elurteak. Zubietan, esate baterako, Kerman Errekondok haxe jaso zuen: Denis Elortza, gure kronista, Zubietako kaxkoan eskiatzen. Baina elurteak hainbat arazo eragin zituen, bereziki, errepidean. Autoan ibiltzeko elurra bera baino ondorengo izotza izan zen arriskutsuena. Hori dela eta, EuskoTreneko erabiltzaile kopuruak gora egin zuen nabarmen elurte egunetan.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ODOL EMAILE TALDEAREN ERRONKAK **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

KONPOST EGITEKO AUKERA **8. OR.**

ELURTEA ARGAZKITAN **10. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. 943 362 725

Kale nagusia: 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Oñandegin - Gozotegia

LABE-GOXO



ARITZ GORRITI

Banoa

Tripako mina, sukarra, bota gurea... Egun pare bat zeramatzan lagun batek, erdipurdi. Baina ez zuen medikutara joan nahi. Guk esaten genion beste erremediorik ez zuela, txorakeriatan ez ibiltzeko, horrela ezin zuela jarraitu. Berak ezetz. Azkenean ordea, ezin zuen gehiago jasan eta kasu egin zigun.

Txanda eskatuta, aurpegi zurbilarekin iritsi zen bere herriko anbulatoriora. Orain hilabete batzuk egon zen bertan, ohiko txekeoa egiten. Gaztetxo baten moduan zegoela esan zion sendagileak. Anbulatorioko itxaron gelan zela mediku jator hartaz oroitu zen. Oraingoan ere berehalako sendabideren bat emango ote zion, galdetzen zuen bere barrurako. Gutxi barru jakingo zuen. Inguruan zain zeudenei begiratuta, hipokondriako samarra izanik, beste inor baino izorratuagoa zegoela iruditzen zitzaion. Halako pentsamenduetan murgilduta zebilen, sendagilearen kontsultako atea ireki zenean. Gure laguna, bestaldera begira zegoen bere izena entzun zuenean. Baina ahotsa ezezaguna zitzaion. Okerren bat behar zuela, bera Mirenekin egon ohi zela erantzun zion. Medikuek Miren joan zela eta haren orde zegoela erantzun. Gure lagunak, berriro ez! zioen bere golkorako. Orduan oroitu zen, azken proba orokorrak egin zituenean, jakinarazi zion medikuak. Beste ezer ez bazuen, urtebete beranduago

joateko, bera egon ez arren.

Kontsultara sartu zen, medikuak aurrekoa bezala, profesional ona eta pertsona hobea zirudien. Gaixotzen den orok beti eskertu izan ohi du, hartu beharreko botika errezetatzearekin batera, aurrean duen profesionalaren partetik tratu atsegina jasotzea. Eta egia esan beti zortea izan du. Egokitu zaizkion mediku guztiak egoki jokatu dute. Baina joaten den bakoitzean aurpegi berri batekin topo egiten du. Eta hemen betikoa; txanponaren bi aldeak. Lanpostua ziurtatua ez duten eta anbulatorio batetik bestera dabilzan profesionalen lan egonkortasun eza batetik. Bere osasun historiala behin eta berriz azaldu edota konfiantza eta tratua sarri berri behar duen herritarra beste aldean. Osasun zentro askotako kontua da. Pentsa ia hogei urtez anbulatorio batean lanean jardun zuen mediku baten lanpostua plaza lehiaketa publikora atera zuten iaz. Herritarrek aipatu profesionala etxekotzat zuten, ezaguna, konfiantzazkoa. Kexatu eta sinadurak ere bildu zituzten. Baina beste behin, herritarren nahiari kasu zipitzik ere ez. Mediku hura joan zen.

Gure lagunak argi du. Badaezpada, hurrengo baterako, anbulatoriora telefonoz deitzean medikuaren izena galdetzea erabaki du. Oraingo sendagileak jakinarazi dio jada; "bi hilabete barru, ni hemendik banoa".

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: urtarrilak 23. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 19.

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Otar-Goxo
Elkagariak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

2009ko erronka, 200 odol emailerengana iristea

1 53 herritarren borondateari esker, 297 odol emate izan ziren iaz. 2007an baino gehiago, odol emailen elkartekoen egindako balantzean ageri denez. Halere, odola behar da, eta gutako edonor bere beharrean izan liteke, akaso gaur, agian bihar. Odol emaile elkartekoen helburua, 200 emailtara iristea litzateke. Gogorarazten dutenez, aipatu kopurua lortzea, “denon esku dago”.

Eskatutako osasun baldintzak betetzen dituzten 18-66 urte arteko lau mila herritarrek eman dezakete odola, baina aipatu kopuruaren %3,82a hurbiltzen da ambulatorioan burutzen diren saioetara. Hala jakinarazi dute Usurbilgo odol emailen elkartekoen, iazko balantzea egiterakoan.

ODOL EMAILEAK

“Azken datuak kontuan hartuta, goranzko joera nagusitzen ari da”

Guztira 153 herritarrek eman zuten odola 2008an antolatu zituzten sei saioetan. Bederatzi herritarrentzat iazkoa estreinako urtea izan zen, odol emateari dagokionean. Munduko Osasun Erakundeak gomendatutako portzentajearen gainetik dago Usurbil. Aipatu erakundeak mila biztanleko 50 emanaldi aholkatzen baditu, herria iaz 50,46ko mailara ailegatu zen.

Gainera, 2007ko emaitzak hobetu eta goranzko joerari eutsi zitzaion. Baina askotan aipatu izan ohi denez, odola fabrikatzen ez den gauza gutxietako bat izanik, dagoena partekatzea, beste bideirik ez dago. Ambulatoriora joandako herritar gehienek iaz behin edo bitan eman zuten odola, emakumezkoek urtean hirutan eta gizonezkoek lautan emateko aukera dutenean. Odol emaileak sexuka bereizita, alde handiegirik ez; 67 emakume eta 86 gizonezkoek eman zuten odola joan berri zaigun urtean.

Duela sei urteko kopuruak

Aurrera begira, elkartetik jakinarazi dutenez, odol emaile kopurua gehitu eta berrehuneko kopurura ailegatzea nahi lukete, “odola eman dezaketenen herritarren kopurua %5era iristea”, aipatzen dutenez. Hain zuzen, iazko emaitzak hobetu dira. Baina duela sei urteko zifretara (329 emanaldietara) itzultzeko tartea dago oraindik. 2003az geroztik urtero hogeinaka gutxitu edo gehitu da odol emate kopurua. Azken datuak aintzakotzat hartuta, goranzko joera nagusitzen ari dela aipatu behar.

Kontuan hartzeko deialdiak

Emakumezkoek urteko gehienez hirutan eta gizonezkoek lautan eman dezakete odola. Hona hemen, aurtengo hizorduak:

Odol emate egunak 2009an: **martxoak 2, maiatzak 4, uztailak 6, irailak 7, azaroak 2.**

Odol Emaile Eguna 2009: abenduak 8.



URTEAN SEI BAINO EZ DIRA IZATEN
ODOLA EMATEKO DEIALDIAK.

DATUTAN

ODOL EMATE MAIZTASUNA	EMAILE KOPURUA
Behin	51
Bitan	61
Hirutan	38
Lautan	3

URTEA	EMATE KOPURUA
2008	297
2007	275
2006	299
2005	276
2004	295
2003	329

Ipuin ikastaroa antolatu da Udarregi ikastolan

Umearen hasierako bizimoduan familia du bere mundu osoa. Hortik jasoko duen hizkuntza izango du lehen hizkuntza, bere mundu afektiborako hizkuntza. Horretan eragin nahi du Buruntzaldeko udalek martxan jarri duten ekimen honek, HH 5eko gurasoei zuzenduta dagoen ipuin ikastaroak.

Euskararen familia bidezko transmisioaren garrantziaz jabetuta, Usurbilgo Udalak Buruntzaldeko udalekin elkarlanean eta HABE eta HPSrekin lankidetzan, 2008/2009 ikasturtean familia bidezko transmisioa indartzeko plana laugarren ikasturtez jarri du abian. Plan horren baitan, euskarazko ipuinak kontatzen eta sortzen trebatzeko ikastaro

laburra egingo da Udarregi ikastolan.

HH 5eko gurasoei zuzendua

Nori zuzendua: HH5eko gurasoei.

Noiz: urtarrilaren 21, 22 eta 23an.

Ordutegia: 14:30-16:30.

Tokia: Udarregi Ikastola (Agerialden).

Izena emateko epea: urtarrilaren 15a (tutoreari eman izen-emate orria).

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Urte berri on!



Agur bero bat denoi eta bereziki urte berri on! Pasa dira jada gehiegikeria nagusi diren jai hain preziatuak. Bai, preziatuak esaten dut zeren denok ere egun horien zain egoten gara; lanean dabilenak opor egun batzuk nahi dituelako, ikasten ari dena arrazoi beragatik eta haurrak berriz Olentzero eta Erregeak etortzen direlako... Eta, gehiegikeria zergatik diodan? Ba, gehiegi jaten dugulako, gehiegi edaten dugulako, gehiegi erosten dugulako, zenbait momentutan gehiegi faltsutzen garelako zoriona opatuaz gaur nahiz bihar aurpegira elkarri begiratu ez diogula jakin... Dena da gehiegi, dena da lar!

Halere, aurtengo oporraldi amaierak izan du puntu berezi bat eta hori elurra izan da. Jai guztiak pasa ostean egin duen elurrik nik uste denok poztu egin gaituela. Kuriosoa da benetan elurrik sortzen duen fenomenoa. Denok dakigu, helduok behinik-behin, sekulako kaosa sortzen duela elurrik bazterretan, baina hala ere gurean ikusten dugunean poztu egiten gara, alaitu, mendira joateko gogoia sartzen zaigu... Aitzakia polita izan da Gabonetan hartutako beteketa guztiak apur bat arintzeko.



Kontuak-kontu urte berria estreinatu dugu baina aurtengo galdera ikur askotxorekin estreinatu dugulako erreze-loa hartzen dut. Galdera ikurra baino agian zalantza esan beharko genuke, urte amaiera ez baita batere xamurra izan, besteak beste, krisia dela medio. Tira, datorrena hartzea besterik ez dugula uste dut baina ea ahalik eta xamurren pasatzen den guztiontzat.

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Urte berriarekin Txotx!



Kronika hau idatzi nuenean, Usurbil elurrez estalia zegoen. Gabonak bukatu eta elurra egin!! Beste opari bat gure txikientzat. Haurrak ikastolatik atera zirenean ez ziren beti bezala gurasoengana joan, lagunekin elur bola batzuk botatzera baizik. Gozatu genuen hauek ikustean.

Gure auzoan, kostata, baina izan dugu Olentzerorik, oiloak eta guzti gainera. Esan behar da gabonak, ondo eserita hasi zituela, baina egunak pasa ahala, nekearengatik edo, joan egin zela. Orain urte oso bat izango du pilak kargatzeko, eta ahaztu gabe eskerrak eman Luis eta konpainiari, Hajek gabe...

Bestalde, ikastaroek bere horretan jarraitzen dute, beraz bakoitza bereari eta asmo berriak dituztenei urte honetan, tutsi goiari, ze dirudienez urte Gomorra datorkigu gaitera. Batzuk agian lana galdu duzue edo horren beldar Zárate, baina, aurrera begiratu beharra dago eta elurra egin duenez urte oparoa ere izan daiteke.

Beste kontu batekin amaitzeko, gure auzoan behintzat, txotx garaia hasi dela esn behar, gertatzen dena da, ba, krisi honekin... nik behintzat Martxeli proposamen bat botako diot: sagardotegi bonoak. Probatzeagatik...

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Urtea hasi da

Urte berri on denoi. Olentzero itzuli da mendira, eta errege magoak ekialdera; saltokietako ilerak bukatu dira, erosketak egiteko antsietatea amaitu da, eta gure gorputzak janari eta edarien gehiegikeriak pairatzen ari dira.



Urtero bezala lagun ikustezinak opari pare bat utzi dizkit. Bat liburu bat, "kometak zeruan" izenburua duena. Istoria hau Afganistanen gertatzen da, eta zehazki Kabul. 175. urtea da, eta hamabi urteko ume baten bidez, hiriko giro bizia eta oparoa azaltzen da.

Noski giro honek ez du zer ikusirik gaur egun guda giroan murgilduta dagoen Afganistanekin. Beste oparia berriz mihisea edo lienzo bat izan da. Bota duen elurrik erraza jarri dit. Mihise zurian elur zuria margotzea dut onena.

Gaur berriz, jada 2009an gaude. Kanpoan, kalean elurra ari du, eta ez naiz nekatzen hari begira. Gero eta elurmataza handiagoak, gero eta gehiago. Emeki emeki estaltzen ditu kaleak, teilatuak eta kotxeak, belardiak ere bai.

Esaera batek esaten duen moduan, "elur urtea ondasun urtea". Urte berri on denoi!

AGINAGA

M^aANGELES ARRUTI

Gabon eskea



Hau da hau Hargazki ederra, Ainara Aizpuruak Intxaurretan ateratakoa, artaldea bere artzaiarekin, gabon eskekoa. Taldean ditugu Tenerifeko lau haur, haiek ere ezagunak dituzte abesti batzuk eta hor ibili ginen denok batera.

Goizeko bederatzietan irten eta bukatu genuerako laurak baziren. Nekatuta bukatu genuen eta bidean baziren bi edo hiru etxe pasa gabe utzi genituenak. Diru asko bildu genuen, eta hemendik eskerrak bidaltzen dizkiet denei. Bitxikeria polit bat ere izan genuen, atari batera iritsi ginen eta inor ez zegoen etxean baina, atean sobre bat zegoen eta bertan "Gabon eskekoentzat" jartzen zuela ikusi genuen. Hori da gogoraz-



tzea hori!, mila esker.

Oso ondo pasa genuen eta Horacio erretoreak izan zuen aukera Aginaga eta inguruetako baserri, etxe eta bertako jendea ezagutzeko.

Horrez gain, Aloña trikitilariaren lana ere aipatu nahiko nuke.

Horrenbeste ordutan trikitixa hartuta hor ibili zen jo eta jo. Beti bezala muxutruk eta borondate ona erakutsiaz.

Eskerrak berari eta bildu ginen guztiei, bestela ezin izango litzateke horren talde polita bildu.

ATXEGALDE

M^aJESUS URBIETA

Urte berri on!



Urte berri baten hasieran aurkitzen gara berriro, gabon jaiak eta urte zaharra atzean geratu dira beste behin ere eta horrela doaz urteak, bat joan eta bestea etortzen da ziztu bizian. Egun hauetan gazte koadrilak ondo apainduta ikusi ahal izan ditugu Santo Tomasetan, Olentzero bezperan. Poza ematen du benetan. Zorionak eta jarraitu horrela.



Erregeak ere izan genituen eta ondoren elurrez txurituta izan ditugu herriko txokoak. Irudi paregabeak ikusteko aukera izan dugu, Andatza, Luis Gorritiren baratza mendiak. Ikuskizun bikaina benetan. Hala ere auzoan nahiko arrisku ere izan dugu egun hauetan. Aldapatsua izanik auzoak nahiko lanak eman dizkigu istripurik gabe ibiltzen. Gatza botatzen jardun arren, arreta handiz ibili behar. Ez dugu aukera maiz izaten eta jolasteko eta barre pixka bat egiteko ondo etortzen da. Elur bolak bota eta elkarrekin jolasean gozatu dugu.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Negu minean

Elurra gozo-gozo ari du. Mendia eta Ezelaia zurituta. Zerrenda beltz estuak erakusten du plazarako bidea. Berde tanta apurak belarra nagusitzen denetan. Hotza.

Urrats bakanak erakusten dute ehiztariaren ibilera. Egun pare eman dute inguruko ehiztariak hegabera saldo baten atzetik: orain Zubietan, hurrena San Estebanen ... Hotzarekin etorri dira eta eskopetek gora egin dute.

Elurrarekin baina, ezin tiroa bota eta ehiztaria etxe atarian. Hala ere, hegabera pasatzen ikusita dardarak astindu du ehiztaria, eta besoak altxa, baina eskopeta falta du. Senak gidatzen gaitu, norberaren barneko animaliak. Horren kontra legea ere ahul. Horregatik tiroak entzuten dira, bai iluntzetan, bai eta elurrarekin ere.

Hegoalderago joan beharko dute hegaberek eta oilagorrek bizirik behar badute. Guk etxe barrura beste garai batzuen zain. Negua bere minean.



Etxetik hasi behar delako

Mila Alzagaren sendiak autokonpostaje ekimenarekin bat egin du

Udalak abian jarri duen egitasmoaren bidez, etxeko konpostajea egiteko gailua hila bete amaierara arte eska daiteke. Jada, izena eman duten herritarren zerrendan dago Mila Alzaga eta bere sendia. Baina dagoeneko denbora daramate prestatzen, entrenatzen haien baratzan. Eskuz egina duten konpostagailutik lurraren-tzako ongari dezente atera dute jada.

NOAUA! Konpostagailua eskatu duten herritarren artean zaudete. Zergatik erabaki duzue etxean halako gailu bat jartzea?

Mila Alzaga. Gu geronen aldetik lehen ere baratzako arbak, baratzan bertan lurperatzen genituen. Konposta nola egiten zen egun batean telebistako erreportaje batean ikusi nuen, baina ez nintzen hasi, ez nekien oso ondo nola egin behar zen. Hitzaldi batera etorri nintzen eta ideia gustatu egin zitzaidan. Etxeko zati organikoari irtenbidea emateko orain arte ere baratzan lurperatzen genuen. Baina are hobeto aprobetxatzeko arrain, oilasko hondakinak... konpostagailua eskatzea erabaki dugu.

N. Gutxi gorabehera, zenbat organiko sortzen duzue?

M. A. Bi balde txiki astean, beti ere etxean gauden jende kopuruaren arabera. Denok gaudenean, hiru balde txiki ere bai. Gutxiarekin, gehienez jota pare bat.

N. Aipatu duzun moduan, autokonpostajea egin izan duzue orain arte?

M. A. Hitzaldiaren ostean, etxean geure konpostagailua egitea bururatu zitzaigun. Bidoi bat hartu genuen, oinarria moztu genion, zulo batzuk egin, eta bertan, konposta ikasi dugun bezala egin hasi gara.

N. Zuen zakarrontzia ia hustuta gongo da?

M. A. Bai. Lehen poltsa txiki bat ateratzen genuen egunero. Baina orain bat betetzeko, poltsa txiki bera betetzeko astearen erdia edo gehiago behar izaten

dugu.

N. Gutxiagotan joan behar orain zakar ontzira?

M. A. Plastikoa, kartoia, beira eta organikoak kenduz gero, oso hondakin gutxi geratzen da.

N. Zuen esperientziatik zer esan diezaiokezu konpostatzeko aukera dutenei?

M. A. Aukera dutenei animatzeko. Denak hasiera animatzen ditut ez baita zaila eta ez da denbora asko behar. Zaborraren gaia oso arazo larria da. Nork bere kontutik ahal dena kendu eta desegin bidez, ahal dugun guztiok egin beharko genukeela iruditzen zait.

N. Kontu berria dirudi, baina aspalditik egin ohi da?

M. A. Bai. Aitak arba guztiak baratzean lurperatzen zituen. Etxeko patata azalak ere orduan baratzera eramaten ziren. Ez da kontu berria.

MILA ALZAGA

“Ondo konpostatuz gero, usainik ezin du egon. Guk geuk ez dugu nabaritu”

N. Sukaldean prestatzen erabilitakoa eta guzti?

M. A. Hitzaldian aipatzen zen moduan, ondo konpostatuz gero usainik ezin du egon. Guk geuk ez dugu nabaritu.

N. Oraingo zeure konpostagailuan, prozesua nola burutzen duzuen azalduz.

M. A. Hitzaldian entzun bezala, belar berdea bota nuen oinarri bezala, hurritzen orbelez betetako bi zaku, eta oinarri pixka bat egin genuenean etxeko organikoak ateratzen hasi ginen. Ontzi txiki batera botatzen dugu organikoak. Hura betetzean bidoira botatzen dugu, baita



MILA ALZAGA, ETXEAN DUTEN KONPOSTAGAILUA ERAKUSTEN.

beste hainbeste hurritzen orbela ere. Une honetan dezente dugu.

N. Zer moduz moldatzen zarete?

M. A. Orain denbora pixka bat behar dugu, gauzak ondo antolatu eta ondo ikasteko. Beste hitzaldi batzuk antolatzen badira joango gara, hobetu dezakeguna ikasteko.

N. Zaila al da konpostatzea?

M. A. Egia esan, zaborra ateratzea kostatzen zaigun bezain beste kostatzen da konpostatzea. Zabor poltsa ateratzen duzun artean, balde txiki bat organiko jaisten duzu eta denbora berean botatzen diozu urritzen orbela edo duzuna. Gauza bat egiten igarotzen duzun denboran, bestea egin dezakezu, zalantzarik gabe.

N. Konpostaz baliatzen zarete gero.

M. A. Konposta ongari bezala baliatzen dugu baratzera botatzeko. Orain, gauza berri batean sartu garela beti berri poza izaten da. Baratzean duela gutxi hasi gara, orain arte aita aritzen baitzen. Geronentzat ikaragarria da geuk landatutako letxuga jatea. Geronek egingdako konposta erabiltzeak ere meritua handia du. Geuk egindakoaren emaitza hartzen ari gara. Beraz, oso pozik gaude.

Javier Arrutiren bizitokian autokonpostaje komunitarioa egiten dute

Egunkari bidez San Markos Mankomunitatea konpostagailuak banatzekotan zela jakin zuenean, bere etxeko loretokiko belarrentzat konponbidea aurkitu zuen Javier Arrutik. Konpostatze prozesuaren bidez, lortutako ongarria baliagarria baitzaio ordutik. Berari eta baita eraikin berean bizi diren gainerako senitarteko ei ere. Egun, guztiek autokonpostaje komunitarioa egiten dute.

NOAUA! Mankomunitatearen bidez eskuratu zenuen konpostagailua?

Javier Arruti. Telefonotik deitu nuen eta bat eskatu nuen. Ikastaro bat egin genuen. Liburu bat irakurrita hasi ginen konpostajea egiten, lore tokiko belarrak aprobetxatuz.

N. Ordutik zenbat denbora igaro da?

J.A. Urtebete inguru. Oraindik behar bezala hustutzeke dut. Sei hilabete nahikoa dela diote, baina denbora gehixeago behar du. Ongarri bezala aprobetxatuko dugu.

JAVIER ARRUTI

“Lehen zabor poltsara botatzen zena, orain dena txikitu eta konpostagailuan sartzen dugu”

N. Zerk bultzatu zintuen konpostagailua eskuratzera?

J. A. Bai. Lauzpabost zabor poltsa handi belarrez beteak botatzen genituen lehen. Mankomunitateko ekimenaren berri izan nuenean, belarra alferrik galtzea zela ikusi nuen. Horregatik ekarri genuen konpostagailua. Neure ideia izan zen, inori komentatu gabe erabaki nuen, baina orain denok batean egiten dugu.

N. Konpostagailua ekarri ostetik zabor poltsan aldea nabaritutako zenuten?

J. A. Zati organikoan batez ere. Etxeko denak hasi gara. Eraikineko lau pisuetako bizilagunak. Lehen zabor poltsara botatzen zena, orain dena txikitu eta horra sartzen dugu. Orain beste konpostagailu bat eskatu dut, gutxitxo gertzen baizitzaigun uda partean. Gainera, etxeko guztiok senitartekoak garenez...

N. Zuen berezitasuna hori baita, autokonpostaje komunitarioa egiten duzue. Nola antolatzen zarete egunerokotasunean?

J. A. Organikoa bakoitzak etxean bereizten du. Norberak botatzen du, gero neronek nahasten dut. Besteei irakatsi behar diet orain. Eroritako hosto lehorrak sartu eta organikoarekin nahasten dut. Gero azpiko lurra atera eta lehortzen utzi behar da. Aurten ordea, dugun giroarekin udaberrira arte itxaron beharko dugu. Horregatik nahi dugu bigarren konpostagailua, hartara bat beteta dagoenean bestera botatzen hasiteko. Bi izanda hobeto moldatuko gara.

N. Aipatu bezala, zuek baratzea ez, belardia duzue etxe atarian?

J. A. Baratzea zen guztia belardi bezala jarri genuen. Baratzea genuenean ez zegoen beharrik, baina orain nola loretoki bezala jarri dugun, belarrak aprobetxatzeko modu ona da.

N. Zenbatek parte hartzen duzue konpostaje komunitarioan?

J. A. Hemen hamaika-hamabi lagun bizi gara. Asteburuetan, hamabost-hamasei. Normalean dozena batena konpostatzen da. Asko erabiltzen dugu.

N. Konpostaje on baterako giltzariak zeintzuk dira?

J. A. Etxean kontuz ibiltzea. Fruitu azalak adibidez, oso osorik botatzen badituzu ongarri bihurtzeko denbora gehiago behar du. Xehetzen badira tarte txikiagoa. Hori norberak kontuan hartu behar du. Haziak aparte uzten ditugu, lurrera botatzean denborarekin atera



BIGARREN KONPOSTAGAILU BAT JARRI NAHIAN DABILTA JAVIER ARRUTI ETA BERE BIZILAGUNAK.

litezke eta.

N. Usainik nabari duzue?

J. A. Ez. Belarra botatzen denean, umela egonda ere, lehorrekin nahastean usain guztia jaten dio. Eguraldi lehorra egiten duenean, konpostagailua irekita utzi eta usaina joaten zaio. Bareak, moskitoak eta halakoak ere oso onak direla diote.

Konpostagailua doan jasotzeko aukera

Konpostagailua doan lortu nahi duenak urtarrila amaitu arteko epea du izena emateko. Udalak aipatu ahalegina egiteko prest dagoena lagundu nahi du. Modu honetan:

1. Konpostagailua doan emango zaie autokonpostajea egiten hasi nahi dutenei.

2. Zaborren-tasan %40ko hobaria izango dute autokonpostatzen hasten direnek.

3. Ikastaroa doan izango dute konpostatzen ikasi nahi dutenek.

4. Urtebetez teknikari baten laguntza izango dute.

Hotza eta elurra nagusi

Azken urteotan, maiz hitz egin da aldaketa klimatikoaz, ia ez dela udazkenik, neguak jada ez direla negu... Baina aurten, ezin antzekorik esan. Negua bere gorritasunean iritsi baitzaigu. Hotza eta elurra nagusi izan ziren aurreko astean. Gogotik egin zuen elurra bi egunez. Honek hainbat arazo eragin zituen errepidean eta baita espaloietan ere. Ondorengo izotzak ere arriskua areagotu zuen. Baina irudi ederrak utzi dizkigu aurtengo lehen elurteak. Hona hemen Alaitz Aizpuruak, Kerman Errekondok eta Aritz Gorritik egunotan ateratako erretratuak.



GAZTEAK, BORDATXOKO ERROTONDAN ELURRAREKIN JOLASEAN.





Haritz Zubiaur, Lehen Erregional taldeko entrenatzailea

“Lehen seiren artean egoteko maila dugu”

Saltsa askotan ibilitakoa da Haritz Zubiaur. Pilota munduan eta futboleko nabarmendu izan da gehienbat. Orain, ordea, futboleko dabil buru-belarri. Erregional mailako entrenatzailea da. Iaz, ordea, taldeko jokalaria zen. Baina ikasturtea entrenatzaile lanetan hasi du eta gustura gainera. Beste izen batzuk ere atera ziren baina bera izan zen hautatua. Bost partida irabazi zituzten jarraian eta poza nabari zitzaion aurpegian Haritzi. Pasa den asteburuan, ordea, galdu egin zuten Sanpedrotarrak taldearen aurka. Urtarrilaren 17an hasiko dute bigarren itzulia Erreterian jokatuz.

NOAUA! Hurrekin aritu izan zara, nesken taldeko entrenatzaile ere izan zinen. Azken urteak Usurbil FTko erregional mailako jokalaria lanetan eman dituzu. Orain, ordea, zu zara entrenatzailea. Nola izan da hain ohiakoa ez den bilakaera hori?

Haritz Zubiaur. Azken urteetan entrenatzaileak kanpokoak izan dira (Iker Dorronsoro, iazkoa, Igeldokoa zen). Aurreko denboraldi amaieran, kluba desagertzekotan egon zen... Lan talde berria berandu osatu zen, ekaina bukaeran edo. Entrenatzaileak ez zen erregional mailan eta nik nire burua eskaini nuen. Ilusioa banuen, jokalaria ezagutzen nituen; azkenean, ni hautatu ninduten.

N. Taldeko kideak zirenak, zure “aginduetara” daude orain. Tartean, gertuko lagun asko pentsatzen dut. Erraza al da pauso hori ematea?

H. Z. Nahiko ondo joan da. Lagun asko daude tartean, baina beraiek ere gauzak ondo egiteko borondatea azaldu dute.

N. Jokalaria izan zara duela gutxi arte. Ez al duzu zelaira ateratzeko tentatiorik izan?



GIRO ONA NAGUSI DA USURBIL FT TALDEKO ALDAGELAN.

H. Z. Gogoia bai. Kontrakoa gertatu zen, ordea. Defentsarekin nahiko justu ibili ginen hainbat astetan, lesioak tarteko, jokalaria faltan ginen eta, nire artean, “orain jolasten hasi behar al dut?”. Hori bai izango zela deserosoa, entrenatzaile eta jokalaria lanetan aritu behar izatea. Nik oso gustukoa dut jokatzea, baina bietan aritzea nahiko nahasteborrastea iruditzen zitzaidan. Bigarren taldeko gazte bat igo genuen eta, egia esan, oso ondo erantzun zuen.

ERREGIONAL TALDEA

“Gabonetako oporrak baino lehen, 5 partida irabazi zituzten jarraian, baina aurreko larunbatean galdu egin zuten”

N. Jokalaria edo entrenatzaile izan, zertan aldatu zaizu eguneroko martxa?

H. Z. Jokalaria zarenean, zaindu egin behar zara. Ostiral gauean, bereziki. Beti horrela ibili naiz eta lasaiago bizitzeko gogoia nuen. Orain, larunbat goiz batean mendira joan naiteke. Lehen ezin nuen hori egin. Egia da jokatzen ezin

dudalako inbidia pasa ohi dudala batzutan, baina entrenatzaile bezala ere gustura nabil.

N. Dena den, lehen jardunaldietan emaitzak ez ziren onak izan. Ez zen hasiera erraza izan zuretzat.

